

HUNGER STRIKERS DECEASED



SANDS
05 MAY 81



HUGHES
13 MAY 81



M^cCREESH
21 MAY 81



O'HARA
21 MAY 81



M^cDONNELL
08 JULY 81

Aparteko historia bat

Julie Duchatel

(Bobby Sandsekin biografiazko frantsesezko edizioaren itzultzailea)

Historia hau nahiko historia apartekoa da. Giza historia bat da, batetik. Eta bat-bateko maitemina batena, bestetik. Maitemina, bai, baina... liburu batekin. Liburu hau berezia delako. Ezin da irakurketatik osorik atera. Denis O'Hearnek -Soziologia irakaslea eta AEBetako segurtasun handiko kartzetako presoaren aldeko ekintzailea- Bobby Sands ikertzeko ideia izan zuen, IRAK Londresekin 1998ko Bake Akordioa sinatzen zuen bitartean. Mexikotik Beirutera ezagun zen Sands, baina ezer gutxi genekien bere bizitzari edo nortasunari buruz (ezta Ipar Irlandako gatazkan adituak direnak ere). Bagenekien Irlandan 800 urtetik gora iraun duen ingeles kolonialismoaren kontrako ekintzaile errepublikanoa zela eta 66 eguneko gose-grebaren ostean Belfasteko Long Kesheko kartzelan hil zela, 1981eko maiatzaren 5ean. Bagenekien Westminsterreko Parlamentuko kide hautatu bazuten ere,

Margaret Thatcherrek ez ziola jaramonik egin. Bobbyren ondotik, gose-greba berean, bederatziz irlandar gazte adonatsu hil ziren: Francis Hughes, Raymond McCreech, Patsy O'Hara, Joe McDonnell, Martin Hurson, Kevin Lynch, Kieran Doherty, Tom McIlwee eta Mickey Devine. Bobby eta bere burkideek, ehunka presoren eta milaka errepublikanoaren babesarekin,

«Aparteko liburu bat... [Bobby] bizirik eta kartsu dago orri bakoitzean. Inportantea zera da: liburuak langile klaseko ohiko mutil batetik azken urteetako iraultzaile engaiaturako garapena deskribatzen duela».

Laurence McKeown,
Bobby Sandsekin gose-greba burutu zuen preso ohia.

preso politikoen estatusa aldarrikatzen zuten eta, horregatik, preso komunaren uniforme jantzeari uko egin zioten. Garai haietan borrokaren parte handi bat kartzelan egiten zen, eta uniforme hori onartzeak kanpoan errepublikanoek egiten ari ziren borroka kriminalizatzea zekarren.

Denis O'Hearnek zazpi urte iraun zituen ikerketa luze bati ekin zion, eta ikerketa horretan zehar borrokan parte hartutako eta Bobby ezagututako hainbat pertsona aurkitu zituen. Era horretan, bere bizitza idoro zuen. Bobby gazterik hil zen, baina bizitza oparoa izan zuen; altruista, komunitateari eskainia, poesiari, erresistentziari, anaitasunari eta elkartasunari emana. Hau da, hil zen unean jendearentzat zena baino askoz gehiago izan zen bere bizitza.

Liburu hau biografia hutsa baino askoz gehiago da. Saiakera politikoa da, historia liburu bat, polizia-eleberrri bat



HURSON
13 JULY 81



LYNCH
01 AUG 81



DOHERTY
02 AUG 81



M^cILWEE
08 AUG 81



DEVINE
20 AUG 81

eta, horrez gain, Europako kartzelarik modernoek zeuzkan baldintza ankerrei buruzko testigantza baliotsua ere bada. Liburu hau zirrargarria da auto-didakta baten historiaren baitan sartzen gaituelako, kartzela barruko anaitasunak gainditu ditzakeen baldintzen berri ematen digulako eta bertan egindako protesta ekintza ezberdinek emandako ereduak erakusten digulako (*no-wash protest, dirty protest* etabar). Halaber, liburu honek kartzela barruko literatura- eta poesia-sorkuntzaz dihardu, hau da, mundu absurdu, itsusi eta esperantzarik gabeko batean sorkuntzak zer esan nahi duen aztertzen du. Liburuko itzultzaileek badakite zer den hori. Aitzol eta Jurgik esan zidatenez, lagun kortsikar batek oparitu zien Sanden biografiaren frantsesezko bertsioa. Ira-

kurritakoan, argi ikusi zuten itzuli egin behar zutela konpartitzeko, eztabaidatzeko eta sufrimendua gainditzeko zituen gako garrantzitsuengatik.

Dagokion pasio eta ardurarekin ekin zioten lan erraldoi honi. Maila batean, kartzelako denborak azkarrago egiten zuen aurrera azkeneko emaitza horretara bidean lan egiten zutenean: lanaren euskaratzera, alegia. Emaitza horren berri izan zuenean, Denis O'Hearn zeharo hunkitu zen. Hori baino modu hobetik, gose grebalari irlandarren lan eta borrokari omenaldi egiteko!

Munduko beste leku batzuetan ere badu oihartzun berezia liburu honek. Turkierara itzuli berri dute, adibidez, Turkiako eta Kurdistango preso politikoek Sands eta bere burkideek egindakoan inspiratu-

«Benetan nabarmena izan zen gazte baten bizitza... Nola pasatu zen gaztetxo ausart bat izatetik iraultzaile konprometitu, sentibera eta anti-inperialista izatera. [Liburu honek] erakusten du interesa nonahi egon daitekeela».

Mumia Abu-Jamal

ta gose greba ugari egin dituztelako.

Eskuak eta bihotzak erretzen dituen liburua da. Gazte hauen borroka gizateariarena izatera heldu delako eta, hortaz, boluntario horiek erakutsitako graziak ezandarazten duelako. Liburu hau, Denisen talentuagatik, Aitzol eta Jurgiren eskaintzagatik eta kontatzen duen historiagatik Euskal Herrian klasiko izatera kondenatuta dago. *Tiocfaidh ár lá.**

martxoa

liburu gomendatua

Denis O'Hearn

Bobby Sands Martxa baten lehen notak

1981eko maiatzaren 5ean, 66 eguneko gose-grebaren ostean, Long Kesh kartzelako ospitalean hil zen Bobby Sands. Ipar Irlandako langile-klaseko familia batean hazitako gaztea. IRAko boluntarioa. Britainiar parlamentaria. Poeta. Mugimendu errepublikanoko liderra. Bera eta beste bederatzi burkide heriotzeraino eraman zuen borroka mundu mailako ikono bihurtu zuen. Hala ere, Denis O'Hearenek biografia hau idatzi zuen arte ezer gutxi genekien haren bizitzaz. Orriotan, gazte engaiatu baten bizitza kausitzen dugu, West Belfasteko kaleetatik mugimendu errepublikanoko zuzendaritzara eraman zuen ibilbide koherente eta esku-zabala. Bobby Sands eredu izan da mundu osoko borrokalari entzat; hona hemen iraultzaile handi baten bizitza-eta duintasun-testigantza.

Itzultzaileak: Aitzol Iriondo Iurgi Mendinueta



Aldaketa
otsailaren
25a
baino lehen

0502011 TXALAPARTA

BIOGRAFIA

550 or.

Salneurria 22,00 €

Bazkideak 17,60 €

EGILEA



Denis O'Hearn Mexiko Berrian jaio zen eta 1970eko hamarkadan Belfastera joan zen bizitzera. Bertan, urte askoan ekintzailea izan zen: West Belfasteko Foro Ekonomikoko presidente izan zen baita Scoil na Fuisoige gaeliko eskolako zuzendaritzako kide ere. Wisconsinoko eta Belfasteko unibertsitateetan irakatsi du eta, egun, Binghamtoneko unibertsitatean Soziologia irakaslea da.